Antzezlanen testuak itzultzeko laguntzen arauak

2025ko deialdia

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak laguntzen eskaera hauek aztertuko ditu: nagusiki dramaturgian aritzen diren **SGAEko bazkide egileek** eta **itzultzaile profesional batek edo gehiagok** batera aurkeztutakoak.

Bazkideek antzezlanaren testu bakarra aurkeztu beharko dute, egile bakarrekoa edo beste egile batzuekin elkarlanean egindakoa. Eskaeran egile bakoitzaren izenak eta NAN zenbakiak adierazi beharko dira. Elkarlanean aurkeztutako testuei dagokienez, egileen kopurua ez dago mugatuta.

Itzultzeko aurkeztutako testua elkarlanean egindakoa izanez gero, egilekide guztiak SGAEko bazkideak izan beharko dira, salbuespenik gabe.

Era berean, itzulpena itzultzaile batek baino gehiagok egin ahalko du. Guztien izenak eta NAN zenbakiak adierazi beharko dira eskaeran.

Itzulpena nortasun juridikoa duen erakunde batek ere egin ahal izango du, eta beharrezkoa izango da eskabidean haren izena eta IFK zenbakia adieraztea.

Egile edo itzultzaile batek ezin du urte berean SGAE Fundazioaren laguntza bat baino gehiago jaso, bidaia baterako laguntza ez bada.

Bigarrena: proiektuen tipologia

Deialdian parte hartu ahalko dute arauen lehen klausula eta irizpide hauek betetzen dituzten eskatzaileek bidalitako proiektuek:

- Espainiar herritartasuna duten eta bizilekua espainiar lurraldean duten egileek gaztelaniaz edo espainiar estatuko beste hizkuntza koofizialen batean idatzitako jatorrizko testu bat aurkezten badute, espainiar estatuko hizkuntza ofizialak ez diren hizkuntzetara itzultzeko testuak soilik onartuko zaizkie.
- Espainiar herritartasunik EZ duten eta bizilekua espainiar lurraldean duten egileek gaztelaniaz edo espainiar estatuko beste hizkuntza koofizialen batean idatzitako jatorrizko testu bat aurkezten badute, haien ama-hizkuntza ez den eta espainiar estatuko hizkuntza koofizialak ez diren hizkuntzetara itzultzeko testuak onartuko zaizkie.
- Espainiar herritartasunik EZ duten eta bizilekua espainiar lurraldean duten egileek gaztelaniaz edo espainiar estatuko beste hizkuntza koofizialak ez diren hizkuntzaren batean idatzitako jatorrizko testu bat aurkezten badute, espainiar estatuko hizkuntza ofizialak ez diren hizkuntzetara itzultzeko testuak onartuko zaizkie.
- Espainiar herritartasuna duten eta bizilekua espainiar lurraldean EZ duten egileek gaztelaniaz edo espainiar estatuko beste hizkuntza koofizialen batean idatzitako jatorrizko testu bat aurkezten badute, espainiar estatuko hizkuntza ofizialak ez diren eta egileak bizi diren lurraldekoak ez diren atzerriko hizkuntzetara itzultzeko testuak soilik onartuko zaizkie.
- Espainiar herritartasuna duten eta bizilekua espainiar lurraldean EZ duten egileek espainiar estatuko hizkuntza ofizialen batean idatzita ez dagoen jatorrizko testu bat aurkezten badute, haiek bizi diren herrialdekoa ez den atzerriko hizkuntza batera eta espainiar estatuko hizkuntza ofizialak ez diren hizkuntzetara itzultzeko testuak soilik onartuko zaizkie.

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin

- Espainiar herritartasunik EZ duten eta bizilekua espainiar lurraldean EZ duten egileek espainiar estatuko hizkuntza ofizialen batean idatzita ez dagoen jatorrizko testu bat aurkezten badute, haiek bizi diren herrialdekoa ez den atzerriko hizkuntza batera itzultzeko testuak soilik onartuko zaizkie.

Proiektuarekin batera, testuaren itzulpena egiteko egileek itzultzaileei emandako baimena bidali beharko da. Baimen hori egileak eta deialdi honetako itzultzaile eskatzaileek sinatu behar dute (eredua gure webgunean dago eskuragarri). Edonola ere, egileek eta itzultzaileek kasuan kasuko itzultzeko kontratua sinatu beharko dute haien artean. Itzulpen hauek onartuko dira: **2025ko urtarrilaren 1etik** aurrera egindakoak eta **2026ko martxoaren 31ra** arte egiteko aurreikusita daudenak.

Hirugarrena: SGAE Fundazioaren ekarpena

Eskaera bakoitzari eslei dakiokeen zenbatekoa ezingo da 2.000 € baino gehiago izan (zergak barne). Ordainketa arau hauen zortzigarren klausulan ezarritakoaren arabera egingo da, hau da, SGAE Fundazioaren, egilearen eta itzultzailearen artean sinatutako hitzarmenari lotutako ordainketa-agiri baten bidez, eta PFEZren kasuan kasuko atxikipenak aplikatuko dira. Itzulpena eskaera egin aurretik hasi edo bukatu bada (bigarren klausulan adierazitako epeen barruan) eta egileak itzultzaileari dagoeneko ordainketa (osoa edo zati batena) egin badio, SGAE Fundazioak esleitutako laguntza emango dio egileari, azken horrek itzultzaileen zerbitzuaren faktura (indarrean dagoen araudi aplikagarriaren baldintzak bete behar dituena) eta itzultzaileek itzulpenaren zenbatekoa kobratu izanaren banku-egiaztagiria helarazten duenean. Itzulpenaren (eta dagokion kontratuaren edo akordioaren) hasiera-data laguntza hauek ebatzi ondorengoa bada, emandako zenbatekoa itzultzaileari ordainduko zaio zuzenean, egileak/ek itzultzaileari itzulpena egiteko emandako baimenean oinarrituta, betiere itzulpena enpresa batek egiten ez badu.

Itzultzaileari zenbatekoa ordaindu bazaio, eta testu originalak egilekide bat baino gehiago badu, SGAE Fundazioak ordainketa egingo die zuzenean zenbateko hori ordaindu duten egileei.

Deialdi honen ebazpena argitaratzen den unean itzulpena oraindik egin gabe badago, eta itzulpena hainbat itzultzailek egin behar badute, SGAE Fundazioak zuzenean ordainduko dio/e itzulpen-kontratua sinatu edo sinatuko duen/ten itzultzaileari/ei, betiere itzulpena merkataritza-enpresa batek egin ez badu. Itzulpena nortasun juridikoa duen erakunde batekin adostu bada, egileak/ek itzulpenaren zenbatekoa ordaindu beharko dio/diote kontratatutako enpresari, eta SGAE Fundazioak, ondoren, laguntza zuzenean ordainduko dio/die zenbateko hori ordaindu duen/duten egileari/egileei, egileak/ek itzulpenaren ordainagiria aurkeztu ondoren.

Laugarrena: agiriak

Eskaerek agiri hauek izan behar dituzte:

1. Eskaera-inprimakia, egileek eta itzultzaileek behar bezala beteta.
2. Egilearen edo egileen CVa.
3. Itzultzailearen edo itzultzaileen CVa.
4. Itzulpen-proiektuaren deskribapena: sipnosia, itzultzeko aukeratutako hizkuntzaren justifikazioa, aukeratutako itzultzailearen justifikazioa, itzulpenaren kronograma eta abar.
5. Testu originala
6. Itzulpenaren aurrekontua.
7. Egileek eta itzultzaileek sinatutako itzulpen-kontratua edo baimena.

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin

8. Egileari laguntzaren ordainketa egiten bazaio, itzultzaileak egindako zerbitzuaren faktura, indarrean dagoen araudiaren baldintzak bete behar dituena, eta itzultzaileek itzulpenaren zenbatekoa kobratu izanaren banku-egiaztagiria.
9. Aurkeztatuko testuak dagoeneko editatu badituzte, egileek bermatu beharko dute, edizioaren kontratua aurkeztuta, itzultzeko eskubidearen titulartasuna dutela. Bestalde, egileek esklusiboki laga badute itzultzeko transformazio-eskubidea, eskaerarekin batera, aipatutako transformazio-eskubidea laga zaion editoreak edo hirugarrenak sinatutako baimena aurkeztu beharko dute, egileak ahalduntzeko itzultzaileekin deialdi honen xede den itzulpena kontratatzeko.
10. Egilearen/egileen eta itzultzailearen/itzultzaileen baimena, SGAE Fundazioak deialdi honen esparruan haien datu pertsonalak erabil ditzan. Aurkeztu beharreko baimen-eredua SGAE Fundazioaren webgunean dago eskuragarri, laguntza honen deialdiaren atalean.

Bosgarrena: ebaluazio-irizpideak

Jasotako proiektuak ebaluatzeko honako hauek kontuan hartuko dira: proiektuaren bideragarritasuna aurkeztutako aurrekontuen arabera, proiektuak izan dezakeen eragin soziokulturala eta, hala balitz, laguntza hauen bidez lortutako baliabideen aplikazioaren eraginkortasuna. Era berean, bereziki balioetsiko dira beste alderdi batzuk, hala nola egile emakumeen parte-hartzea.

Seigarrena: eskaerak aurkeztea eta epea

1. Eskaeraren inprimakia SGAE Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak eskaera guztiak jaso izana adieraziko du, eta falta diren agiriak jakinaraziko dizkie dokumentazio osoa aurkeztu ez dutenei. Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia ez dagoela adierazten dioten eskatzaileak 15 eguneko gehieneko epea izango du eskaera zuzentzeko, SGAE Fundazioak dokumenturen bat falta dela jakinarazten dien egunetik hasita. Eskaera adierazitako epean zuzentzen ez badute, ez da aintzat hartuko.
2. Antzezlanen testuak itzultzeko 2025ko deialdirako eskaerak aurkezteko epea **2025ko martxoan 20an (osteguna)** hasiko da, eta zabalik egongo da **2025ko maiatzaren 16eko (ostirala)** 23:59ak arte. Ez dira aintzat hartuko epe horretatik kanpo heltzen diren eskaerak.

Zazpigarrena: prozedura eta eskaeren ebazpena

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da arauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak erabakiko du laguntzak zeini eman eta ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie idatziz.
3. Batzordearen ebazpena apelaezina izango da.

Zortzigarrena: lankidetza formalizatzea

SGAE Fundazioak, onartutako proiektuen egileek eta itzultzaileek elkarlanerako hitzarmen bat izenpetuko dute. Horrek, halabeharrez, dokumentu honetan ezarritako arauak bete beharko ditu, baita jarraian zerrendaratuko dugun informazioa ere:

1. Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektuaren hasieraren eta amaieraren epea.
3. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin

4. Ordaintzeko modua.
5. Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa, SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa edukiko duen materiala, bukaerako memoria eta azken itzulpena entregatzea).

Hitzarmena laguntzaren egileekin eta itzultzaileekin formalizatuko da, eta horiek arau hauen lehen klausulan ezarritakoa bete behar dute.

SGAE Fundazioak onartutako proiektuaren egileei eta itzultzaileei eskatuko die hitzarmena formalizatzeko beharrezko dokumentazioa. Dokumentazio hori helarazteko gehieneko epea bi (2) hilabete izango da, SGAE Fundazioak hori eskatzen duen egunetik hasita. Onuradunek ez badute dokumentazioa epe horretan helarazten, laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute. Dokumentu guztiak aldeen artean sinatuko den hitzarmenaren atal bereizezina izango dira, eta ez dira itzuliko.

Halaber, SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunei helaraziko die aldeek sinatu beharreko hitzarmena. Onuradunek gehienez bi (2) hilabeteko epea izango dute hitzarmenaren aleak sinatuta itzultzeko, laguntza kobratzeko ordainketa-agiriarekin batera. Onuradunek hitzarmena edo ordainketarako dokumentua aipatutako epean helarazten ez badituzte, laguntza galduko dute.

Bederatzigarrena: konfidentzialtasun-eginbeharra eta datu pertsonalen babesa

Proiektuaren kudeaketan aldeek ematen duten informazio guztia konfidentziala da eta ezingo zaie hirugarrenei ezagutzera eman. Era berean, ezingo da erabili ezarritako helburuetarako ez bada, indarreko legeriak zehaztutako salbuespenetarako ez ezik.

Eskatzaileak borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, eta laguntzen deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko erabiliko dira bakarrik. Datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidearen titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko eta horien aurka egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Horiek erabiltzeko helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoen arreta, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. Idazkiak izena, abizena eta baliatutako eskubidea adierazi beharko ditu, eta NAN/AIZ edo pasaportearen kopiarekin batera aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat joko ditu eta usteko du haren egungo egoerarekin bat datozela. Interesduna behartuta dago aldaketak jakinaraztera, horiek gertatzen diren mementotik aurrera.

Hamargarrena: arau orokorrak

1. Egile bakarreko antzezlana izanez gero, proiektuaren egileak berak aurkeztu beharko du eskaera. Elkarlanean egindako proiektua izanez gero, eskaera egilekide guztiek batera aurkeztu beharko dute.
2. Berezko nortasun juridikoa eta itzulpen-zerbitzuak egiteko helburu soziala duten enpresen bidez ematen badituzte itzultzaileek zerbitzu profesionalak, enpresa horiek behar bezala osatuta eta dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, nahitaezko hitzarmena sinatu eta laguntza formalizatzeko. Halaber, hitzarmenak sinatzeko gaitasuna duten haien legezko ordezkarien indarreko dokumentazioa (behar bezala inskribatua) aurkeztu beharko dute. Era berean, frogatu beharko dute itzultzaileak haien langileak direla edo haiek ordezkatzen dituztela lan profesionalak egiteko.
3. Aurkeztatuko testuak dagoeneko hirugarren batek ustiatzeko editatu baditu, egileek bermatu beharko dute, edizio-kontratua aurkeztuz, itzultzeko eskubidearen

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin

titulartasuna erreserbatu dutela. Bestalde, egileek esklusiboki laga badute beren obra itzultzeko transformazio-eskubidea, eskaerarekin batera, aipatutako transformazio-eskubidea laga zaion editoreak edo hirugarrenak sinatutako baimena aurkeztu beharko dute, egileak ahalduntzeko itzultzaileekin deialdi honetan aurkeztutako obraren itzulpena kontratatzeko.

4. Eskaera aurkeztean, egileek eta itzultzaileek agiri honetan ezarritako baldintzak eta arauak esanbage onartzen dituzte. Era berean, egileek eta itzultzaileek baimena ematen diote SGAE Fundazioari emandako laguntzari buruzko informazioa zabaltzeko memorietan eta bestelako argitalpenetan.
5. Itzulpena ez bada deialdi honen ebazpena baino lehenago egin, itzultzaileek testua itzulita aurkeztu behar dute oinarri hauen 2. paragrafoan ezarritako epearen barruan, hots, 2025ko martxoaren 31 baino lehen. Horrela ez bada, itzultzaileak behartuta egongo dira SGAE Fundazioari ordaindu zaizkien zenbatekoak itzultzera.
6. Egileek eta itzultzaileek SGAE Fundazioa erantzukizunetik salbuetsiko dute, indarrean dagoen legea hausten badute, proiektua egiteari eta garatzeari dagokionez, eta, batez ere, honi dagokionez: testua hizkuntza guztietara eta mundu osora itzultzeko transformazio-eskubidearen titulartasuna duten eta egileei horren itzulpena egitea baimendu ez dieten editoreei edo hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalteetatik eratorritako erantzukizunari.
7. Kontratu honen ondorioz, SGAE Fundazioak ez du emandako ekarpena ez den beste erantzukizun zuzen edo subsidiariorik izango proiektua egin eta garatzen denean.
8. Dokumentu honi ezartzen zaion legeria Espainiakoa da eta alderdiek egokitu ahal zaien foruari uko egin eta Madrilgo Auzitegien jurisdikziopean egotea onartzen dute.

Informazio gehiago: ayudas@fundacionsgae.org

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

sgae taldearen laguntzarekin